

ADOPTIA 2016 zerbitzuko familientzako



“Sistemikoa da, baten hobetzeak guztiengan dauka eragina. Horregatik amaieran gurpilaren antzeko bat gauzatzen da non, parte-hartzaile guztiek onura ateratzen diote.”

**THERAPLAY TEKNIKETAN
OINARRITUTAKO FAMILIENTZAKO
JOLAS TERAPIA TAILERRA**

ADOPTIA

Zerbitzua

Bilbo

ADOPZIOAN espezializaturiko
arreta psikosozial eta aholkularitza zerbitzu pribatua

Tailerraren helburua, familian, jolas-jarduerak erabiliz, bai gurasoei bai seme-alabei euren arteko erlazioak hobetzen laguntzea izango da.



JOLAS-TERAPIA familia harremanak eta norberarenganako eta besteenganako konfidantza hobetzen duen egituratutako jolas-lan metodoa da.

Tailerraren saioetan, gurasoak seme-alabekin nola harremantzen diren lantzen da, hurrengoak lortzeko:

- Haur bakoitzaren egoerara egokitutako itxaropen eta muga egokiak eta argiak ezartzeko.
- Interakzioetan behar bezala inplikatzeko.
- Haurraren zaintza beharrak asetzeko.
- Arrakasta maila haur bakoitzaren gaitasunei egokitzeko.

Lan metodo honek, adoptatutako seme-alabei euren guraso adoptiboekin harreman ziurragoa eta konfidantzazkoa eraikitzen laguntzen die.

Tailerra hiru atal desberdinetan jorratzen da

FAMILIA BAKOITZARENTZAT

Familia guztien banakako ebaluazio proba egingo da, atxikimendua ebaluatzeko kontutan hartzen diren dimentsioen arabera, emozio segurtasuna sustatzeko gaitasunen ebaluazioa egingo da. Bideoz grabatzen den egituratutako proba da. Bi profesionalek egingo du-te ebaluazioa.



Data: Martxoaren 14tik 18ra bitarteko astea

Ordua familia bakoitzarekin pertsonalki ezarriko da, aurretiko telefono dei baten bitartez. Bertan tailerraren helburuak azalduko dira.

FAMILIA GUZTIENTZAT

Aitek, amek eta adingabeek, adopzioan aditutako terapeuta edo terapeutek gidatuta, jolas-jardueren bitartez parte hartuko duten lau esku-hartze saio izango dira.

Datak: Apirilak 6, 13, 20 eta 27 (astero)

Ordua: 17.00etatik 18:00etara.

FAMILIA BAKOITZARENTZAT



Gurasoekin, saioetan landutakoaren abordaia burutuko da, ordu batenko iraupeneko deboluzio saio batean.

Data: Maiatzaren 9tik 13ra bitarteko astea (familia bakoitzarekin zehaztuko da).

TOKIA: Laida Gela. Madariaga Etorbidea 1,
4. solairua, Dustu-Bilbo

PREZIOA: Tailer Terapeutikoan parte-hartzea:
200€.

IZEN-EMATEA

Kontakturako pertsona: Clara Zabala,
94.474.52.55 telefono zenbakian

Izen-ematearen epe-muga: Martxoaren 9a.

Oharra: Parte-hartuko duten familiek saio guzti-
etara etortzea gomendatzen da, sortzen den gi-
ro emozionalak, esku-hartzearen eraginkortasu-
na sustatzen bait du.

*“Batez ere helduentzat izan da erabilga-
rria, gure semearen erreakzio batzuen
zergatiak identifikatzeko eta hauek
berarentzat eta familiarentzat
onuragarria izan den ikuspun-
tutik tratatzeko.”*

I.C.C.

